2025/2026KO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO BEKAK

BEKA-ESKATZAILEENTZAKO JARRAIBIDEAK

2024/2025 IKASTURTEAN BEKA JASO ZUTEN IKASLEAK

2024-2025 ikasturtean beka edo laguntzaren onuradun izan eta matrikula kudeatzeko aplikazioan ikasketak egiten ari diren ikasleei, SMS eta/edo posta elektroniko bidez, jada betetako eskaera-zirriborroa eskuratzeko aukera emango zaie.

Eskabidea telematikoki aurkeztea erabakitzen baduzu, SMS eta/edo Email bidez emandako Interneteko helbidea erabili ahal izango duzu, eta dagokion ikaslearen jaiotze-data sartu eta "proposamena deskargatu" botoia sakatu. Horrela, eskabidearen zirriborroa lortuko duzu, eta honela aurkez dezakezu: zirriborroan emandako kodea (aukera: "Egiaztapen-kodea duen telematikoa"), ziurtagiri elektroniko bat (aukera: "Telematikoa ziurtagiri elektronikoarekin") edo eskabide-inprimakia inprimatuz, sinatuta eta ikastetxera joanda ("ikastetxean bertan" aukera).

Aplikaziora sartu gabe eskabidea aurkezteko, zure ikastetxera joan beharko duzu, eta han emango dizute eskabidea. Eskabidea berrikusi eta, hala badagokio, aldatu ondoren, eskatzaileak **sinatu** eta ikastetxean entregatu beharko du, eta bertan erregistratuko da. Era berean, ikastetxeak egiaztagiri bat emango dio, eta gorde egin beharko da, erreklamazioren bat izapidetu behar izanez gero aurkeztu ahal izateko.

Eman beharreko dokumentazioa: eskabide-inprimakian aipatzen diren dokumentuak erantsi beharko dira, soilik 2024/2025ko ikasturtean emandako datuekiko aldaketarik egon bada. 2024an elkarbizitza-unitatean lortutako diru-sarrerei dagokienez, Hezkuntza Sailak ogasun administrazioen bidez lortu ezin dituen egiaztagiriak soilik aurkeztuko dira (Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpo zergak ordaintzen badituzte, PFEZren aitorpena aurkeztu beharrik ez badute edo beste edozein egoera suertatzen bada).

GAINERAKO IKASLEAK:

Eskabide-inprimakia bi eratara izapidetu daiteke:

- Telematikoki, Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzak - Ikasleak - Hezkuntza - Euskadi.eus helbide elektronikoaren bidez, administrazioak onartutako edozein egiaztagiri elektronikoren bidez identifikatuta (Izenpe txartela, NANe, BAKQ edo halakorik) edo erabiltzaile berri gisa erregistratuz. Eskabide elektronikoa erabat beteta dagoenean, izapidetze telematikoa egiten jarraitu edo paperan aurkeztea aukeratu beharko du.

- Paperan. Zentroak eskabide-inprimakia emango dio eskatzaileari, eta sisteman aurrez sartutako datuekin aterako da. Eskatzaileak eskabidea beteta eta sinatuta entregatzen duenean, zentroak eskabidea erregistratu eta egiaztagiria entregatuko du. Eskatzaileak ondo gorde behar du egiaztagiria, gerora erreklamaziorik egin behar bada.

Erantsi beharreko dokumentazioa: eskabide-inprimakian zerrendatutakoa.

2024/2025 IKASTURTEAN BEKA JASO ZUTEN IKASLEAK

1.- Bidaltzen zaien estekan sartzean, honako hau agertuko da: ikaslearen jaiotze-data sartu eta "Proposamena deskargatu " sakatu behar duzu proposamenaren inprimakia lortzeko:





1.a) - Proposamenarekin ados egonez gero, “eskabidea aurkeztu” botoia sakatu eta honako leiho honetara joango dira:

1.b) - Bertan, eskaera-inprimakiaren bigarren orrialdean dagoen egiaztapen-kodea sartu eta baliozkotu botoia sakatu beharko dute eskabidea telematikoki aurkezteko.
Baieztatu ondoren, helbide elektroniko bat eskatuko dizu, eta, gainera, aurreko eskaeran ez bazegoen zure banku-kontuari buruzko informaziorik, zure banku-kontuaren datuak ere eskatuko dizkizu.



1.c) - "Baieztatu" sakatzen baduzu, eskaera modu telematikoan aurkeztuko da



1.d) - Aurkeztutakoan, mezu hau agertuko zaizu, eta erregistroren egiaztagiria deskargatu ahal izango duzu, "Erregistroaren egiaztagiria" sakatuz:





2.- Ikastetxeari bere eskabide-proposamenaren inprimakia jasotzera ere joan daitezke.

Kasu horretan, eskabidea telematikoki aurkezteko, inprimakiaren bigarren orrialdean agertzen den helbidera sartu beharko duzue, egiaztatze-kodearekin batera. Sartzean, "2024-25an beka jaso duten ikasleak" ataletik sartu beharko dira, eta leiho honetara eramango zaituzte, datu hauek betetzeko: ikaslearen tutore gisa identifikatzeko datuak, egiaztatze-kodea eta "balioztatu" botoiari eman.



EGIAZTATZE-KODEA: **ieclRE**

Egiaztaze-kodea erabiliz, eskabide-proposamen hau telematikoki baliozta edo alda daiteke honako webgune honetan:

http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/

GARRANTZITSUA: Ez badago banku-kontuaren zenbakia jada jakinarazita, derrigorrezkoa da eskaeran adieraztea, aplikazioaren bidez telematikoki adieraztea edo ikastetxean bertan adieraztea.

15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten dizugu inprimaki honetan lortutako datu pertsonalak UNIBERTSITATEAZ KANPOKO BEKAK ETA LAGUNTZAK izeneko fitxategian sartuko direla tratatu ahal izateko. Nahi izanez gero, datuak kontsultatu, zuzendu, baligabetu eta aurkaratzeko eskubideak erabili ditzakezu Legeak aurreikusten duenez; horretarako, idazki bat bidali behar duzu Hezkuntza Sailera. Baliabide Materialen eta Azpiegituren Zuzendaritza. Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

2.a) - Iaz ez bazenuen bankuko kontu-zenbakirik adierazi puntu honetan, kontu bat eskatuko zaizu.

Baieztatu proposamena.

Puntu honetan, mezu elektroniko bat eskatuko dizugu, eskaera aurkeztu izanaren justifikazioa bidali ahal izateko.

2.b) - Aurkeztu ondoren, berrespen-mezu bat agertuko zaizu, eta erregistro-frogagiria deskargatu ahal izango duzu "erregistroaren egiaztagiria" sakatuz: